Bestelako Xedapenak

JUSTIZIA ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA

5619

AGINDUA, 2010eko urriaren 27ekoa, Justizia eta Herri Administrazioko sailburuarena, «On line erregistro zibila» programa (Inforeg aplikazioa) Euskal Autonomia Erkidegoko bake epaitegietan ezartzeko xedez ekipamendu informatikoa eskuratzeko helburuz udalen aldeko laguntzak arautzeko dena.

Botere Judizialaren Lege Organikoak xedatzen duenez, udalerriaren esparruan txertatutako organoak dira bake-epaitegiak, eta Auzitegi eta Epaitegien Mugape eta Antolaketari buruzko abenduaren 28ko 38/1988 Legeko 50. eta hurrengo artikuluetan jasotako aurreikuspenen arabera, instalazioak eta baliabide materialak, besteak beste, udalaren ardura dira aipatutako bake-epaitegirik dagoen lekuetan. Artikulu horietan jasotzen da, halaber, udalei diru-laguntzak eman behar zaizkiela, eta, hori dela-eta, ez zaio orain arte uko egin aipatutako organoetako baliabide materialen mantenurako udalekin izan ohi den lankidetzari.

Bake Justiziari buruzko abenduaren 22ko 411/1998 Dekretuak han-hemengo arauak bildu ditu, arlo horretako diru-laguntzei buruzko alderdi orokorrak arautzeko.

Horrela, diru-laguntzen programa bat garatu da Euskal Autonomia Erkidegoan, udalek bake-epaitegien arloan dituzten beharrei aurre egiteko sostengu ekonomiko gisa. Hori dela-eta, 1990 urtetik hona Euskal Autonomia Erkidegoko udalei eman beharreko laguntzak arautu dira baita laguntza horietarako deialdiak egin ere, bake-epaitegien funtzionamendu- eta inbertsio-gastuei aurre egin diezaieten.

Hori dela eta Justizia eta Herri Administrazioko sailburuaren 2010eko ekainaren 18ko Agindua argitaratu da, udalei bake-epaitegien funtzionamendu-gastuetarako diru-laguntzak emateko dena.

Inbertsio-gastuei dagokienez, batez ere aurre egin nahi zaie ekipamendu informatikoaren alorrean agertutako beharkizunei, azken urtetan laguntza kontzeptu hauen xedekoak izan ez direlako eta «On line erregistro zibila» (Inforeg aplikazioa) programa ezarri ahal izateko bake epaitegi guztiak beharrezko azpiegituraz hornitzea beharrezkoa delako.

Euskal herritarrei zerbitzu eraginkorra eta ona emate aldera bake epaitegiak baliabide egokiez hornitzeko helburuz eginahalak egin badira ere, epaitegi horietan zenbait arlotan beharrezkoa da bultzakada

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA

5619

ORDEN de 27 de octubre de 2010, de la Consejera de Justicia y Administración Pública, por la que se regulan las ayudas para la adquisición de diverso equipamiento informático a favor de los Ayuntamientos para la implantación del programa «Registro civil en línea» (aplicación Inforeg) en los Juzgados de Paz de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

Los Juzgados de Paz se conciben por la Ley Orgánica del Poder Judicial como órganos incardinados en el ámbito del municipio, y a tenor de las previsiones contenidas en los artículos 50 y siguientes de la Ley 38/1988, de 28 de diciembre, de Demarcación y de Planta Judicial se prevé que las instalaciones y medios instrumentales, entre otras cuestiones, son a cargo del Ayuntamiento donde existan dichos juzgados de Paz, así como la necesidad de subvencionar a los mismos, de ahí que no se haya renunciado a la tradicional colaboración con los municipios en el mantenimiento de los medios materiales de dichos órganos.

El Decreto 411/1998, de 22 de diciembre, sobre Justicia de Paz, ha recogido la diferente normativa, previendo los aspectos generales de las subvenciones en la materia.

Así, se ha venido articulando un programa subvencional en el ámbito de la Comunidad Autónoma Vasca como soporte económico de las necesidades que sobre esta materia recaen en los Ayuntamientos, por ello se ha procedido a regular y convocar desde el año 1990 ayudas a favor de los Ayuntamientos de la Comunidad Autónoma del País Vasco para la atención a los gastos de funcionamiento e inversión de los Juzgados de Paz.

En este sentido se ha publicado la Orden de 18 de junio de 2010, de la Consejera de Justicia y Administración Pública, por la que se conceden ayudas a favor de los Ayuntamientos para la atención a gastos de funcionamiento de los Juzgados de Paz.

En lo que respecta a los gastos de inversión se quiere atender especialmente las necesidades en el área del equipamiento informático, precisamente por no ser objeto este concepto de ayudas en los últimos años y por la necesidad de dotar de la infraestructura necesaria a todos los Juzgados de Paz para la implantación del programa «Registro civil en línea» (aplicación Inforeg).

Así a pesar del esfuerzo para dotar de medios adecuados a los Juzgados de Paz para dar un servicio publico eficaz y eficiente a la ciudadanía vasca hay áreas de actuación en la actividad de dichos Juzgados que

eta diru-laguntza berezia ematea teknologia berriak erabiliz erregistro zibiletarako sarrera hobetzeko. Garrantzia epaitegi horiek eraberritu eta informatizatzeko ataza horri ematen zaiola eta, Red.es izeneko erakunde publiko enpresarialak eta Justizia eta Herri Administrazio Sailak azpiegitura eta ekipamendu egokiez –ekipamendu informatikoa erostea eta Internetiko konexioa– hornitu nahi dute kudeaketako tresna berriak eta garatutako sistemak oro har erabiliak izan daitezen. Helburu hori gauzatzeko, aipaturiko Inforeg programa Euskal Autonomia Erkidegoko bake epaitegi guztietan ezarriko da.

Agindu honen helburua da eskuordetzean Euskadin dauden erregistro zibilak koneksioaz, ekipamendu informatikoaz eta euskarriez hornitzea Inforeg informatika aplikazioa ezartzeko. Ekipamenduen zuzkidurak biztanleen kopuruaren irizpidearen arabera ezarriko dira.

Horrekin lortu nahi dena da informatizazioari esker udalerri bakoitzeko erregistro zibilak zerbitzu hobea eskaintzea, izan ere, horrela ahalbidetuko da udalerri horretako herritar guztien egoerei buruzko inskripzioak egitea euskarri elektroniko aldagaitzean. Halaber, litekeena izango da edozein erregistrotatik telematikoki eskatu eta lortzea udalerrian eginiko idazpenak eta udaleko erregistro zibiletik eskatu eta lortzea sistemarekin konektaturik dagoen edozein ziurtagiri. Horrekin lortzen dena da erregistroliburuak grabatu eta digitalizatzeko prozesuan aurrerapausoak ematea.

Halaber ahalbidetu nahi da benetan gauzatzea herritarren eskubidea Euskadiko edozein hizkuntza ofizialetan erregistro-inskripzioak egiteko. Eskubide hori eratu da gai horretan ekainaren 22ko 12/2005 Legearen bitartez Estatuko arauan sartu den aldaketan, eta, hain zuzen ere, harekin eraberritu da Erregistro Zibilari buruzko 1957ko ekainaren 8ko Legearen 23. artikulua. Aldaketa hori azken urratsa izan da erregistroei buruzko legedian izandako aldaketen ibilbidean eta haren bitartez azken ondoetaraino eraman dira gaztelaniaz gain beste hizkuntza bat duten autonomia erkidegoetan koofizialtasuneko irizpidea.

Horiek horrela, Euskal Autonomia Erkidegoko 2010 urteko aurrekontu orokorrak onartzen dituen abenduaren 23ko 2/2009 Legeak ezarritakoaren arabera, honako hau

EBATZI DUT:

1. artikulua.– Helburua.

Agindu honen helburua da «On line erregistro zibila» programa (Inforeg aplikazioa) Euskal Autonomia Erkidegoko bake epaitegi guztietan ezarriko da.

necesitan un impulso y apoyo económico específico para mejorar el acceso a los registros civiles haciendo uso de las nuevas tecnologías. Incidiendo en esta tarea de modernización e informatización de dichos Juzgados se pretende abordar por la entidad publica empresarial Red.es y el Departamento de Justicia y Administración Pública la dotación de las infraestructuras y equipamientos adecuados –adquisición de equipamiento informático y conectividad a Internet– para posibilitar el uso generalizado de las nuevas herramientas de gestión y sistemas desarrollados cuya concreción práctica radica en la implantación del citado programa Inforeg en la generalidad de Juzgados de Paz de nuestra Comunidad Autónoma.

El objeto de la presente Orden es dotar de conectividad, equipamiento informático y soporte a los Registros Civiles delegados de Euskadi, para la implantación de la aplicación informática Inforeg. Las dotaciones de equipamiento se establecerán en función del criterio de número de habitantes.

Se pretende con ello conseguir y hacer efectiva una mejor prestación del servicio público de Registro Civil de cada municipio, a través del proceso de informatización, pues ello permitirá la inscripción de todas las situaciones que afecten al estado civil de sus vecinos en soporte electrónico inalterable, que desde cualquier Registro se puedan solicitar y obtener telemáticamente las certificaciones de asientos realizados en el municipio, y que también desde el Registro Civil municipal se puedan solicitar y obtener certificaciones de cualquier otro Registro que esté conectado al sistema. Con ello se posibilita el avance en el proceso de grabación y digitalización de los libros registrales.

De igual forma se pretende posibilitar de forma efectiva el cumplimiento del derecho de los ciudadanos vascos a practicar las inscripciones registrales en cualquiera de las lenguas oficiales de Euskadi, articulado en la modificación introducida en la propia regulación estatal de la materia mediante la Ley 12/2005, de 22 de junio, por la que se reforma el artículo 23 de la Ley del Registro Civil de 8 de junio de 1957, que constituye el último eslabón normativo en un proceso evolutivo de la legislación registral por el que se despliegan hasta sus últimas consecuencias el principio de cooficialidad de las lenguas propias distintas del castellano en las Comunidades Autónomas que cuenten con ellas.

En consecuencia y en virtud de la Ley 2/2009, de 23 de diciembre, por la que se aprueban los presupuestos generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi para el ejercicio 2010,

RESUELVO:

Artículo 1.– Objeto.

El objeto de la presente Orden es regular y convocar las ayudas para la adquisición de diverso equi-

nomia Erkidegoko bake epaitegietan ezartzeko xedez ekipamendu informatikoa eskuratzeko helburuz udalen aldeko laguntzak arautzea eta dagokien deialdia egitea.

2. artikulua.– Erakunde onuradunak.

Bake-epaitegia duten Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrietako udal guztiak.

3. artikulua.– Diruz lagun daitezkeen jarduerak eta diru-baliabideak.

Diru-laguntzen programa honen zuzkidura gehienez jota 400.000 eurokoa da eta bake epaitegirik daukaten udal guztien artean banatuko da agindu honen xedeko inbertsio-gastuei diruz laguntzeko. Diru-laguntzak ematen dira biztanleen kopuruaren arabera eta jarraian adierazitako kontzeptuetarako:

a) Ekipoak, sistema informatikoa eta sistema eragilearen softwarea eskuratzea, bulegotikako prestakuntza barne. Ekipoek gutxienez honako ezaugarri hauek eduki beharko dituzte: nukleo bikoitzeko 64 bits-eko ordenagailu pertsonala, X86 arkitektura edo handiagoa, RAM memoriako 2 GB edo handiagoa, TFT pantaila eta Internet Explorer nabigatzailea dituena; inprimagailu laser monokromoa, karaktere garbien inprimaketa izateaz gain, inprimaketa bi aldetara egiteko baliagarria eta RAM memoriari dagokionez 32 MB duelarik 160 MBra zabaltzeko aukera duena. Diru-laguntzak dira kontzeptu hauen araberakoak izango dira zenbatekoak gehienez jota honako hauek direlarik:

1.– 0 – 2.500 biztanle: PC bat eta inprimagailu laser bat, zenbatekoa gehienez jota 1.100 eurokoa delarik.

2.– 2.500 – 5.000 biztanle: 2 PC eta inprimagailu laser bat, zenbatekoa gehienez jota 2.050 eurokoa delarik.

3.– 5.000 – 10.000 biztanle: 2 PC eta inprimagailu laser bat, zenbatekoa gehienez jota 2.200 eurokoa koa delarik.

4.– 10.000 biztanletik gora: 3 PC eta 3 inprimagailu laser, zenbatekoa gehienez jota 3.300 eurokoa delarik.

b) Ordaintzea hasierako kuota eta 2010eko abenduaren 31ra arte mantentzekoa Inforeg egoki funtzionatzeko banda zabalera nahikoaz hornituta eta Internetekin konektaturik egon dadin, betiere gehienez jota zenbatekoa 200 eurokoa delarik.

Lehendik ere banda zabalera nahikoa duten udalei dagokienez, mantentzeko kuotan %50a ordainduko da eta epea eta gehienezko zenbatekoa aurreko paragrafoan adierazitakoa direlarik.

c) Eskuratutako ekipoak instalatzeko eta horiek jardun dezaten beharrezko zerbitzu teknikoaren kostua, zenbatekoa gehienez jota 200 eurokoa delarik.

pamiento informático a favor de los Ayuntamientos para la implantación del programa «Registro civil en línea» (aplicación Inforeg) en los Juzgados de Paz de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

Artículo 2.– Entidades beneficiarias.

Todos los Ayuntamientos de la Comunidad Autónoma del País Vasco en donde exista un Juzgado de Paz.

Artículo 3.– Actividad subvencionable y recursos económicos.

La dotación máxima destinada a este Programa de subvenciones es de 400.000 euros, que se distribuirán entre todos los Ayuntamientos con Juzgado de Paz, para subvencionar los gastos de inversión objeto de la presente Orden, para los siguientes conceptos, atendiendo al número de habitantes:

a) Adquisición de equipos, sistemas informáticos y software del sistema operativo, incluida la formación ofimática. Los equipos como mínimo deberán reunir las siguientes características: un ordenador personal de doble núcleo de 64 bits con arquitectura X86 o superior, 2 GB de memoria RAM o superior, con pantalla TFT y navegador Internet Explorer; impresora láser monocromo, impresión de caracteres nítidos, capacidad de impresión dúplex y 32 MB de memoria RAM ampliable a 160 MB. Se subvencionará por este concepto los siguientes equipos y cantidades máximas:

1.– Entre 0 – 2.500 habitantes: 1 PC y 1 impresora láser, con un importe máximo de 1.100 euros.

2.– Entre 2.500 – 5.000 habitantes: 2 PCs, 1 impresora láser, con un importe máximo de 2.050 euros.

3.– Entre 5.000 – 10.000 habitantes: 2 PCs, 2 impresoras láser con un importe máximo de 2.200 euros.

4.– Más de 10.000 habitantes: 3 PCs, 3 impresoras láser con un importe máximo de 3.300 euros.

b) Abono de la cuota inicial y mantenimiento de la conexión con Internet con ancho de banda suficiente para el correcto funcionamiento de Inforeg hasta 31 de diciembre de 2010, hasta un máximo de 200 euros.

En el caso de de los Ayuntamientos que ya tuviesen contratado línea con ancho suficiente se abonará el 50% de la cuota de mantenimiento con el plazo e importe máximo indicado en el párrafo anterior.

c) Coste del servicio técnico necesario para la instalación y operatividad de los equipos adquiridos, hasta un máximo de 200 euros.

4. artikulua.– Eskabideak eta aurkezteko epea.

1.– Eskaerak Justizia Administrazioa Eraberritzeko zuzendaritzari zuzendu beharko zaizkio, eta Justizia eta Herri Administrazio Sailean aurkeztu beharko dira Zuzenean edo Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 38.4 artikuluan aurreikusitako bideetako edozein erabiliz honako helbide honetan: Donostia kaleko 1, 01010, Vitoria-Gasteiz.

2.– Eskabidearekin batera diru-laguntzaren xedeko inbertsio-gastuen aurrekontu xehatua ere aurkeztu beharko da. Diruz lagundu beharreko inbertsio-gastua aurten egin bada diru-laguntzen deialdi hau argitaratu baino lehen, eskaerarekin batera aurkeztu beharko dira gastu hori egiaztatzeko balio duten jatorrizko ordainagiriak.

3.– Diru-laguntzak aurkezteko epea hamabost egun naturalekoa izango da agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunetik aurrera.

5. artikulua.– Diru-laguntzak kudeatzeko organoa.

Justizia Administrazioa Eraberritzeko zuzendaritzari dagokio deialdi honetan aurreikusitako diru-laguntzak kudeatzea.

6. artikulua.– Diru-laguntzak esleitzeko prozedura.

Ezarritako epe barruan eginiko eskabide guztiei, betiere eskabide horiek deialdi honetan eskatutako baldintza subjektiboak eta objektiboak betetzen badituzte, %100eko zenbatekoa emango zaie 3. artikuluan ezarritako mugei jarraituz.

Baldin eta 3. artikuluan zuzkidura osoa nahikoa izango ez balitz zuzen aurkeztutako eskabideei ezarritako gehienezko ehunekoari aurre egiteko, zuzkidura hainbanatuko da horietako bakoitzarentzat onartutako aurrekontuaren arabera.

7. artikulua.– Ebazpena.

1.– Eskaerak aurkezteko epea amaitzen denetik hilabeteko epean Justizia Administrazioa Eraberritzeko zuzendariak ebazpena emango du eta hura onuradun bakoitzari jakinaraziko zaio. Gainera, onuradunen zerrenda EHAAn argitaratuko da. Epe horretan ebazpenik ematen ez bada, eskaerak administrazio-isiltasunaren bidez ezetsia izan direla ulertu ahalko da.

2.– Aurreko idatz zatian aipatzen den ebazpenak ez dio amaierarik ematen administrazio-bideari, eta bere aurka gorako errekurtsoa jarri ahalko diote interesdunek Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuordetzari, hilabeteko epean, jakinarazpenaren

Artículo 4.– Solicitudes y plazo de presentación.

1.– Las solicitudes deberán ser dirigidas a la Dirección para la Modernización de la Administración de Justicia, y presentadas en el Departamento de Justicia y Administración Pública en la c/ Donostia-San Sebastián 1, 01010 de Vitoria-Gasteiz, bien directamente o por cualesquiera de los medios previstos en el artículo 38.4 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

2.– A la solicitud se acompañará el presupuesto desglosado de los gastos de inversión subvencionables. Si el gasto de inversión subvencionable se ha realizado en el presente año con anterioridad a la publicación de la presente convocatoria de ayudas se deberá acompañar a la solicitud las facturas originales justificativas de la realización de tal gasto.

3.– El plazo de presentación de solicitudes será de quince días naturales a partir del día siguiente al de la fecha de publicación de esta Orden en el Boletín Oficial del País Vasco.

Artículo 5.– Órgano de gestión de las ayudas.

Corresponderá a la Dirección para la Modernización de la Administración de Justicia la realización de las tareas de gestión de las ayudas previstas en la presente convocatoria.

Artículo 6.– Procedimiento de adjudicación de las subvenciones.

Todas las solicitudes que habiéndose formulado dentro del plazo establecido y que reúnan los requisitos subjetivos y objetivos exigidos en la presente convocatoria serán atendidas en la cuantía del 100% atendiendo a los límites establecidos en el artículo 3.

Si la dotación global establecida en el artículo 3 no alcanzara a atender en el porcentaje máximo establecido a todas las solicitudes correctamente presentadas, se procederá a prorratear la misma, atendiendo al respectivo presupuesto aprobado para cada una de ellas.

Artículo 7.– Resolución.

1.– En el plazo máximo de un mes a partir de la finalización del plazo de solicitudes, el Director para la Modernización de la Administración de Justicia dictara Resolución que se notificará a cada beneficiario. La relación de beneficiarios de las ayudas, además, será publicada en el BOPV. En el caso de no dictarse Resolución en el plazo citado, la solicitud podrá entenderse desestimada por silencio administrativo.

2.– La Resolución a que se refiere el apartado anterior no pone fin a la vía administrativa y, contra la misma los interesados podrán interponer recurso de alzada ante la Viceconsejería de Justicia, en el plazo de un mes contado a partir del día siguiente al de la

egunaren biharamunetik kontatzen hasita, azaroaren 26ko Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legeko 107. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoari jarraituz.

8. artikulua.– Diru-laguntzaren ordainketa.

1.– Diru-laguntzaren zenbatekoa onuradunei bi zatitan ordainduko zaie. Diru-laguntzaren % 50a onuradunari ordainduko zaio diru-laguntza emateko helburuz Justizia Administrazioa Eraberritzeko zuzendariak ematen duen ebazpena jakinarazi ondoren.

2.– Gainerakoa ordaintzeko, onuradunek 2011ko urtarrilaren 31 baino lehenago justifikatu behar dute diru-laguntza eta harekin emandako dirua eman zen helburua betetzeko erabili dela eta gastatu egin dela. Hori dela eta, honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dituzte:

a) Fakturak, jatorrizko dokumentuan edo konpultsaturiko kopia, diruz lagundutako inbertsioari dagozkionak.

b) Udal onuradunaren idazkariak emandako ziurtagiria non egiaztatuko diren diruz lagundutako erosketak edo zerbitzuak eta, halaber, eskuraturiko ekipoen instalakuntza eta eraginkortasuna egiaztatzen dituena.

c) Bake-epaitegiko idazkariaren ziurtagiria, diruz lagundutako erosketak edo zerbitzuak epaitegian benetan instalatu direla egiaztatzen duena.

Justifikatutako gastua onartutako diru-laguntza baino txikiagoa bada, benetan gastatu den zenbatekoari egokitzeko helburuz, diru-laguntza emateko ebazpena aldatuko da eta, hala badagokio justifikatu gabeko zenbatekoa itzultzeko prozedura hasiko da Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Errege Dekretuko 53. artikuluari jarraituz eta abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuko (Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren pentzutan ematen diren diru-laguntzen bermeei eta horiek itzultzeari buruzko erregimen orokorra arautzen duen eta horien kudeaketan parte hartzen duten erakunde laguntzaileek bete beharreko baldintzak, erregimena eta eginbeharrak ezartzen dituen Dekretua da) bigarren tituluarekin bat etorriz.

Onartutako aurrekontua izango da onuradunak bere eskaeran aurkezten duena, betiere ematen duen administrazioak funtsez uste ez badu aurrekontu hori aldatu behar denik. Aldaketa hori beharrezkoa denean, onartutako aurrekontua izango da aldatu eta gero aurkezten dena.

9. artikulua.– Onuradunen betebeharrak.

1.– Eman den diru-laguntza onartzea. Alde horretatik, baldin eta laguntza eman zaiela jakinarazten den egunetik hamar eguneko epea onuradunak espre-

notificación, de conformidad con los artículos 107 y siguientes de la Ley 30/1992 de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

Artículo 8.– Pago de la subvención.

1.– La cuantía de la subvención se abonará a cada beneficiario en dos pagos. El 50% de la subvención se abonará al beneficiario tras la notificación de la Resolución de concesión emitida por el Director para la Modernización de la Administración de Justicia.

2.– Para el abono de la cantidad restante, los beneficiarios deberán justificar antes del 31 de enero de 2011 el cumplimiento de la finalidad de la subvención y el empleo de la financiación otorgada para lo que deberán presentar ante la Dirección para la Modernización de la Administración de Justicia, la siguiente documentación:

a) Facturas, en documento original o copia compulsada, correspondientes a la inversión subvencionada.

b) Certificación, expedida por el Secretario del Ayuntamiento beneficiario, acreditando la adquisición o servicios subvencionados, así como de la instalación y operatividad de los equipos adquiridos.

c) Certificación del Secretario del Juzgado de Paz, acreditando la la efectiva instalación en el Juzgado de las adquisiciones o servicios subvencionados.

Si el importe del gasto justificado fuera inferior al presupuesto aprobado se modificará la Resolución de concesión para adecuarla al importe efectivamente gastado y, en su caso, se iniciará un procedimiento de reintegro de las cantidades concedidas y no justificadas de conformidad con lo dispuesto en el artículo 53 del Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco y el Título segundo del Decreto 698/1991, de 17 de diciembre, por el que se regula el régimen general de garantías y reintegros de las subvenciones con cargo a los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi y se establecen los requisitos, régimen y obligaciones de las Entidades Colaboradoras que participan en su gestión.

El presupuesto aprobado será aquel que presente el beneficiario en su solicitud salvo que la Administración concedente considere fundadamente que tal presupuesto ha de modificarse, en cuyo caso el presupuesto aprobado pasará a serlo el presupuesto presentado una vez modificado.

Artículo 9.– Obligaciones de los beneficiarios.

1.– Aceptar la ayuda económica concedida. En este sentido, si en el plazo de diez días tras la notificación de la Resolución de concesión de la ayuda, el

suki eta idatziz laguntzari uko egiten ez badio, onartu egin duela ulertuko da.

2.– Adierazitako destinoa betetzeko erabili beharko dute diru-laguntza udal onuradunek. Alabaina, emandako hardwarea udalaren beste betebehar ofizial batzuetarako ere erabili ahalko du betiere Erregistro Zibilaren betebeharretarako zuzen eta lehentasunez erabiliko dela bermaturik badago.

Udala arduratuko da hardwarearen bermearen epea iragan eta gero erabiltzeko beharrezko baldintzetan mantentzeaz. Halaber, oinarrizko softwarea mantentzeaz arduratuko da baita Erregistro Zibilak jardun dezan erabili behar den materialaz hornitzeko ere.

3.– Udal onuradunek Justizia Administrazioa Eraberritzeko zuzendaritzari ezagutarazi beharko dizkiete beste edozein herri administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatuengandik helburu bererako jasotako laguntza edo diru-laguntzak, diru-sarrerak nahiz bestelako baliabideak.

4.– Diru-laguntza jasotzen duten udalak behartuta daude Ogasun eta Ekonomia Saileko Kontrol Ekonomikoko Bulegoak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak, diru-laguntzen destinoa fiskalizatzeko duten funtzioa betez, eskatzen dieten informazio guztia ematera.

5.– Artikulu honetan araututako diru-laguntzak bateragarriak izango dira beste herri administrazio batzuek edo beste entitate publiko edo pribatu batzuek xede berarekin ematen dituztenekin, betiere guztiak batuta diru-laguntza honen objektu den gastuaren % 100 gainditzen ez bada. Halakorik gertatuz gero, gastuaren % 100 gainditzen duen kopurua kenduko zaio deialdi honen arabera dagokion diru-laguntzari.

6.– Diru-laguntza emateko kontuan izandako baldintzak aldatu egiten badira edo agindu honen objektu den diru-laguntzaz gain beste laguntzaren bat jasotzen bada beste administrazio edo erakunde publiko nahiz pribaturen batengandik, diru-laguntza emateko ebazpena aldatu egin ahal izango da, betiere, laguntza eskuratzeko bete beharreko betekizunak bete gabe uzten ez direnean.

7.– Diru-laguntza emateko betekizunak betetzen ez direla frogatzen bada, ez betetze hori edozein izanda ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Altxortegi Orokorrari itzuli egin beharko zaizkio, batetik, jasotako kopuruak eta, bestetik, sortutako legezko korrituak, hala agintzen baitute azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuak eta abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuak. Itzultzeko modua ere aipatutako dekretuetan jasotzen da.

10. artikulua.– Egiaztatzeak.

Justizia eta Herri Administrazio Sailak, emandako finantzaketaren arauak eta baldintzak betetzen direla

Ayuntamiento beneficiario no renuncia expresamente y por escrito a la misma, se entenderá que la acepta.

2.– Los Ayuntamientos beneficiarios deberán utilizar la subvención para el concreto destino para el que ha sido concedida. No obstante, podrá utilizar el hardware suministrado para otras necesidades oficiales del Ayuntamiento, siempre que esté garantizada su utilización correcta y prioritaria para las necesidades del Registro Civil.

El Ayuntamiento se ocupará del mantenimiento del hardware en las debidas condiciones de utilización, una vez transcurrido el plazo de garantía del mismo. Asimismo se ocupará del mantenimiento del software básico, y del suministro del material consumible necesario para las funcionalidades del Registro Civil.

3.– Los Ayuntamientos beneficiarios comunicarán a la Dirección para la Modernización de la Administración de Justicia la obtención de ayudas o subvenciones, ingresos o recursos para la finalidad subvencionada, procedente/s de cualquier/otras Administraciones Públicas o ente público o privado.

4.– Los Ayuntamientos beneficiarios están obligados a facilitar cuanta información les sea requerida por la Oficina de Control Económico del Departamento de Hacienda y Economía y el Tribunal Vasco de Cuentas Públicas, en el ejercicio de sus funciones de fiscalización del destino de las ayudas.

5.– Las subvenciones reguladas en el presente artículo serán compatibles con cualesquiera otras para el mismo objeto otorgadas por otras Administraciones Públicas o ente público o privado, siempre que la suma de ellas no supere el 100% del gasto objeto de esta subvención. En tal supuesto, se reducirá, en la cantidad correspondiente al exceso, el importe que les correspondiera en virtud de la presente convocatoria.

6.– Toda alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la subvención, y la obtención concurrente de ayudas o subvenciones otorgadas por otras Administraciones o entes públicos o privados podrán dar lugar a la modificación de la Resolución de concesión, cuando no supongan incumplimiento de requisitos para ser beneficiario de la ayuda.

7.– La constatación de la existencia de cualquier supuesto de incumplimiento, de las condiciones que motivaron la concesión de la subvención dará lugar, de conformidad y en los términos establecidos en el Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre, y en el Decreto 698/1991 de 17 de diciembre, a la obligación de reintegrar a la Tesorería General del País Vasco las cantidades percibidas más los intereses legales que procedan.

Artículo 10.– Comprobaciones.

El Departamento de Justicia y Administración Pública podrá realizar las supervisiones, inspecciones y

beharrezkotzat jotzen dituen gainbegiratze, ikuskatze eta egiaztapenak egin ahal izango ditu.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Agindu honetan aurreikusi gabeko alderdiei arau hauek aplikatuko zaizkie: batetik, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legea, bereziki VI. tituluan ezarritakoa (azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuak onartutako testu bategina, 1998ko urtarrilaren 19ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratua); bestetik, administrazio-prozedura erkidearen araudia, baita Bake Justiziari buruzko abenduaren 22ko 411/1998 Dekretua ere.

Bigarrena.– Agindu honek amaiera ematen dio du administrazio-bideari. Interesdunek aukerako berraztertze-errekurtsoa jar diezaiokete Justizia eta Herri Administrazioko sailburuari, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik hilabeteko epean; edo, bestela, zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar dezakete Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik bi hilabeteko epean.

Hirugarrena.– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean hartuko du indarra agindu honek.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko urriaren 27a.

Justizia eta Herri Administrazioko sailburua,
IDOIA MENDIA CUEVA.

comprobaciones que considere necesarias para asegurar el cumplimiento de las normas y condiciones de financiación asignada.

DISPOSICIONES FINALES

Primera.– En lo no previsto por la presente Orden serán de aplicación lo dispuesto en la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco, especialmente en su Título VI, texto refundido aprobado por Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre, publicado en el Boletín Oficial del País Vasco de 19 de enero de 1998 y la normativa de procedimiento administrativo común, así como el Decreto 411/1998, de 22 de diciembre, sobre justicia de paz.

Segunda.– Contra la presente Orden, que agota la vía administrativa, podrán los interesados interponer recurso potestativo de reposición ante la Consejera de Justicia y Administración Pública, en el plazo de un mes a partir del día siguiente a su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco, o directamente recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia de la Comunidad Autónoma de Euskadi en el plazo de dos meses a partir del día siguiente a su publicación en el mismo Diario Oficial.

Tercera.– La presente Orden entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 27 de octubre de 2010.

La Consejera de Justicia y Administración Pública,
IDOIA MENDIA CUEVA.